## PROIEKTUA IDAZTEA – Maila aurreratua



### *Checklist hornitzaileentzat: Ingurumen-irizpideak*

### 1. ERANSKINA: BALDINTZAK

BAI zutabeko laukia markatu gutxieneko nahitaezko espezifikazio guztiak eta hitzemandako baloragarriak betetzen direla berresteko. Nahitaezko irizpideak ez betetzeak edo haiek betetzea frogatzen duen abala ez aurkezteak automatikoki baztertzen du eskaintza kontuan hartzea esleipen-prozedurako hurrengo faseetan.

Espezifikazio baloragarrietan, espezifikazioa betetzea frogatzen duen abala ez aurkezteak hari lotutako puntuazioa, eskaintza onuragarriena identifikatzeko balio duena, ezeztatuko du.

<table>
<tr><th colspan="4">ENPRESAREN IZENA:</th></tr>
<tr><th>GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA</th><th>BAI</th><th>ABAL MOTA</th><th>ESKAINTZAREN ORRIA</th></tr>
<tr><td>Ekodiseinuaren kudeaketa-sistemaren ziurtagiria ISO 14006 arauaren edo pareko baten arabera</td><td>☐</td><td>Enpresa kudeatzeko sistemaren ziurtagiria edo prozedurak eta formatuak</td><td></td></tr>
<tr><td>Taldean eraikuntza jasangarriaren arloko aditu bat sartzea gutxienez</td><td>☐</td><td>Teknikariaren curriculuma eta homologazioen kopia</td><td></td></tr>
</table>

| DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK | BAI | ABAL MOTA | ESKAINTZAREN ORRIA |
|---|---|---|---|
| Hondakinak kudeatzeko azterlana sortutako eraikuntza eta eraispen hondakinen helburu batekin eta gutxienez % 80ko balorizazioarekin | ☐ | 1 | |
| Agregakin birziklatua erabilera egokietan | ☐ | 1 | |
| Legezko iturrietako eta espezie ez-mehatxatuetako zura eta produktu parekagarriak | ☐ | 1 | |
| Obra gauzatzeko ingurumen-kudeaketa plana | ☐ | 1 | |
| **IRIZPIDE BALORAGARRIAK** | **BAI** | **ABAL-MOTA/** | **ESKAINTZAREN ORRIA** |
| **1 AUKERA** | | | |
| Urbanizatzeko proiektuen garapen jasangarrirako gida aplikatzean ateratako agiria, emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo aplikagarri ez diren neurrien justifikazioa. | ☐ | | |
| **2 AUKERA** | | | |
| **MATERIALAK:** Materialak in situ aprobetxatzea eta kanpoko materialik ez sartzea. | ☐ | 2 | |
| **URA:** Urak berrerabiltzeko proposamenak | ☐ | 3 | |
| **HONDAKINAK:** Ekonomia zirkularreko politikak eta neurriak. | ☐ | 4 | |
| **EKOSISTEMAK:** Berdeguneak babestu eta maximizatu, ekotonoak babestu eta bultzatu eta lurzoruaren iragazkortasuna eta era ureztatze sistema efizienteak maximizatzen dituzten irtenbideak sartzea. | ☐ | 5,6,7,8,9 | |

**JARRAIBIDEAK**

“**Abal mota**” zutabean ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen dela bermatzen duten agiriak edo informazioa

jaso dezaketen agiriak jaso dira, baina bestelako egiaztagiri baliokideak onartuko dira, ezarritako irizpideak betetzen direla argi frogatzen bada.

Zenbakiak dokumentazio honi dagozkio:

| |
|---|
| 1. Enpresaren konpromisoaren aitorpena |
| 2. Proiektuan materialak in situ aprobetxatzeko ezarriko diren neurrien azalpena eta in situ berrerabilitakoaren azken ehunekoaren zenbatespena. |
| 3. Urtean birziklatutakoaren prezipitazioaren eta bolumenaren zenbatespena. |
| 4. Proiektuan aplikatuko diren ekonomia zirkularreko politiken eta neurrien zerrenda eta inpaktuaren zenbatespena, banakoarena eta globalarena. |
| 5. Proiektuan biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko sartuko dituzten proposamenen zerrenda. |
| 6. Materia organikoa berrerabiltzeko berriz sartzeko pentsatutako neurrien azalpena. |
| 7. Ekotonoak zaintzeko proposatutako neurrien azalpena. |
| 8. Lurzoruaren iragazkortasuna eta uraren ziklo naturalaren oreka mantentzeko irtenbideen zerrenda. |
| 9. Ureztatze sistemaren eta prestazioen azalpena |

**Eskaintzaren orrialdea** zutabean abala eransten den lizitazio-dokumentuaren orrialdea edo eranskina adieraziko da.